



BERRIKUNTZAREN ALDEKO AKORDIOA “BASQUE INNOVATION”

30 EKINTZA



eman botoa
vota

eaj
pnv

EAJ-PNV EUS



BERRIKUNTZAREN ALDEKO AKORDIOA: “BASQUE INNOVATION”

Berrikuntza, funtsezkoa izan da Euskadik bere egungo ongizate-maila lor dezan, eta etorkizun hobe baterako aukera irekiko dígün giltza izango da. Berrikuntza horrek osasunarekin, zahartzearekin, energiarekin eta klima-aldaketarekin edo digitalizazioarekin lotutako erronka global handiei erantzun behar die, eta, aldi berean, Euskadin kalitatezko eta balio erantsi handiagoko enplegu berriak sortzea ahalbidetuko du.

Berrikuntza pertsonen egiten dute, eta, beraz, guztiok berri dezagenu. Berrikuntza ez da enpresa handien, unibertsitateen edo ikerketa-zentron ondare eskusiboa. Tamaina edo intentsitate teknologikoa edozein dela ere, Euskadin dauden erakunde guztiak berritzaileak izatea behar dugu, gure etorkizuna ziurtatu nahi badugu.

Eguno trantsizio teknologiko-digitalari erantzuteko, Euskadik *berrikuntzaren aldeko Akordio* handi bat bultzatuko du - “Basque Innovation” akordioa, gizarte osoa eta erakunde publiko eta pribatu guztiak konprometituko dituena, arreta berezia jarritz enpresei eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean sartzen diren eragile guztiak.

Berrikuntzaren aldeko Akordioak ezagutzen oinarritutako ekonomia sustatzeko **30 ekintza** jasotzen ditu **7 bloketan** banatuta: espezializazio adimendunaren estrategiarekin, I+G+B-ko inbertsioen hazkundearekin, ETEetan berrikuntza bultzatzearekin, zientzia, teknologia eta berrikuntzako sistemaren bikaintasunaren eta emaitzen hobekuntzarekin, nazioartekotzearekin, talentuaren garapenarekin eta emakume ikertzailearen bultzadarekin lotutakoak.

Akordio handi hau ekonomia sektore guztietara hedatzen da, bereziki industriarekin, energiarekin eta osasunarekin lotura handiena dutenetara. Gainera, elikadurarekin, ekoberrikuntzarekin eta ingurumenarekin, hiri-plangintzarekin eta eraikuntza jasangarriarekin, eta kultura- eta sormen-industriekin zerikusia duten lau lurralde edo aukera-sektore aurreikusten ditu.

Akordioaren helburu orokorra da **“Euskadi 2050ean berrikuntzan liderrak diren Europako eskualdeen artean kokatzea”**. Horretarako, bi erronka espezifiko ezarri dira 2025. urterako:

- a) Euskadi Ikerketa eta Garapeneko (I+G) inbertsioen arloan Europako batez bestekoaren gainetik egotea.
- b) Euskadi Europako berrikuntza-poloztat hartzea, eta berrikuntza handiko Europako eskualdeen artean kokatzea.

“Basque Innovation” *berrikuntzaren aldeko Akordioa* Basque Country 2030 Agendan integratzen da, Horizonte Europa ikerketarako esparru-programaren oinarriekin lerrokatuta dago eta Nazio Baituek ezarritako Garapen Jasangarriko Helburuetan laguntzen du.

EAJ-PNVren konpromisoa da 2020. urte honetan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan berria (ZTBP Euskadi 2030) onartzea. Plan horretan zehaztuko dira estrategia, gobernantza eta lidergoa, eta akordio honetan jasotako ekintzak garatzeko beharrezkoak diren tresnak eta inbertsio-plana, 2030. urteari begira.

30 EKINTZA

“BASQUE INNOVATION”

I ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAKO ESTRATEGIA	
1.	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plan berri bat – ZTBP Euskadi 2030 onartzea, Euskadi berrikuntza-gune europar bihurtzeko
2.	Espezializazio adimenduneko estrategia garatzea, industria adimenduna, energia garbiak eta osasun pertsonalizatua lehenetsiz
3.	Aukera duten lau sektoretan berrikuntzaren aldeko apustua egitea: elikadura osasungarria, ekoberrikuntza, hiri jasangarriak, eta kultura- eta sormen-industriak
4.	Berrikuntzaren euskal estrategia bost erronka sozial handiren ebazpenera bideratzea: Energia eta klima-aldaketa – Osasuna – Eraldaketa digitala - Kalitatezko enplegua – Genero-berdintasuna
5.	Herriko hiru trazio-misioren zerbitzura dagoen ikerketa eta garapena: Zahartze osasungarria - Mugikortasun elektrikoa - Ekonomia zirkularra
II I+G+b ARLOKO INBERTSIOAK	
6.	Eusko Jaurlaritzaren I+G+b-ri laguntzeko aurrekontu publikoen urteko %6ko batez besteko hazkundea, 2030era arte
7.	Hurrengo legegintzaldian 7.000 milioi euroko baterako inbertsio publiko-pribatua ikerkuntzan eta garapenean, eta 20.000 milioikoa 2030era arte
8.	Enpresa-produktu berriak prototipatzeko, baliozkotzeko eta probatzeko azpiegiturak indartzea eta hobetzea.
9.	Erosketa publiko berritzaileko edo merkataritza aurreko erosketako programak, Eusko Jaurlaritzatik eta haren enpresa publikoetatik
III BERRIKUNTZA ETA ETE-ak	
10.	ETEetan berrikuntza teknologikoa eta ez-teknologikoa bultzatzea, industria-enpresen %60 gutxienez berritzaileak izan daitezen
11.	Lanbide-heziketako ikastetxeek berrikuntza teknologikoko 1.500 proiektu berri garatzea
12.	Legegintzaldian zehar, Jabetza Intelektualaren Europako Bulegoan erregistratzeko 3.000 eskaera marka komertzialak eta diseinu industrialenak
13.	"Enpresa berritzailearen" kalitate-zigilua, euskal ETE berritzaileak bereizteko
IV ERALDAKETA DIGITALA	
14.	"Gobernu digitalaren" estrategia, Euskadi erakarpen digitaleko gune bihurtzeko
15.	Adimen Artifizialaren Euskal Zentroa, enpresekin, teknologia- eta ikerketa-zentroekin eta unibertsitateekin lankidetzan

30 EKINTZA

“BASQUE INNOVATION”

16.	Euskadi berrikuntza digitalaren Europako nodo bihurtzea, "Digital Innovation Hub" Europako sarean integratuta
17.	Eraldaketa digitalean eta berrikuntzan 5.000 enpresa sartzea, ETEei arreta berezia eskainiz
VI	ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAKO EUSKAL SISTEMA
18.	Bikaintasuneko oinarritzko ikerketa areagotzea, euskal argitalpen zientifikoen %60 bikaintasuneko nazioarteko rankingean koka daitezen
19.	Euskadiren ikerkuntza-gaitasuna garatzeko nazioarteko lankidetzak
20.	Basque Research and Technology Alliance (BRTA) bultzatzea, euskal eskaintza teknologikoa biltzeko eta nazioartean indartzeko
21.	I+G arloko 120 proiektu estrategiko, enpresa traktoreek eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileek gidatuak
VII	NAZIOARTEKOTZEA ETA EUROPA HORIZONTEAREKIN LERROKATZEA
22.	Europako ikerketa-programen funtsetatik 150 milioi euro lortzea
23.	Euskal lidergoa lortzea "Horizonte Europa" ikerketa-programa marko berriko 50 proiektutan
24.	Euskadi berrikuntzarako herrialde erakargarri bihurtzea. Nazioarteko ikerketa eta garapen proiektuak erakartzeko programa espezifikoak
25.	Europako ikerketa-misioetan aktiboki parte hartzea, minbiziarekin, klima-aldaketarekin, hiri adimendunekin, elikadurarekin eta laborantza osasungarriarekin, itsasoan osasunarekin, ozeanoekin, kostaldeekin eta barnealdeekin lotutako Europako erronka sozialak konpontzeko
VIII	TALENTUA GARATZEA ETA EMAKUME IKERTZAILEA BULTZATZEA
26.	Nazioarteko 100 ikertzaile eta 100 teknologo sartzea, Emakumeak erakartzea sustatuz eta Euskadin prestakuntza jaso eta atzerrian lan egiten duten ikertzaileen itzulera sustatuz
27.	Enpresetan ikertzaileen prestakuntza sustatzea, industriako 100 doktore-tesi egiteko laguntza emanez eta Doktoretza duten 100 pertsona enpresetan sartuz
28.	Talentua gehiago erakartzea ekintzaileen bidez eta enpresa berritzaile berrien BIND 4.0 programa garatzea
29.	(STEM) Zientzia, teknologia, ingeniariak eta matematikan bokazio berriak areagotzea, batez ere emakumeen artean
30.	Zientzia, teknologia eta berrikuntzako proiektu eta ekimenetan emakumearen parte-hartzea eta lidergoa bultzatzea, 2024an ikertzaileen % 40 gutxienez emakumeak izan daitezen